

F

ATHLETIC, OPARIZ OPARI. Aurkarien hutsei esker baldin bada ere, Athletic ari da pixkanaka burua altxatzen. Atzo markagailuari buelta eman izanak hiru puntu lortzeko balio izateaz gain taldeari bere buruan sinesteko ere balio izango dio.

Alaves Olentzero, Racing Errege

Racingek barkatu egin zuen atzo bere zelaian, eta Athleticcek ez zuen laga jasotako oparia alde batera

RACING

3

ATHLETIC

4

Racing: Lemmens; Pineda, Moraton, Juanma, Sietes (Pablo Casar, 71. min.), Munitis, Nafti (Ismael, 65. min.), Mateo, Regueiro, Javi Guerrero (Diego Alonso, 78. min.) eta Bodipo.

Athletic: Aranzubia, Javi Gonzalez, Karanka, Lacruz, Del Horno (Larrazabal, 83. min.); Etxeberria, Alkiza, Orbaiz (Oscar Vales, 48. min.), Ezquerro, Tiko eta Urzaiz..

Golak: 1-0: Munitisek (8. min.). 2-0: Javi Guerrerok penaltiz (18. min.). 2-1: Moratonek bere atean (40. min.). 3-1: Regueiok (44. min.). 3-2: Urzaizek penaltiz (51. min.). 3-3: Etxeberriak (61. min.). 3-4: Etxeberriak (87. min.).

Epaila: Bueno Grimal. Txartel horiak: Racingeko Sietesi, eta Athleticceko Karanka, Del Horno, Larrazabal eta Ezquerri.

Haritz Gallastegi |

Urtea amaitu aurretik Olentzeroren ,Alavesen, bisita izan zuen Athleticcek, eta urte hasieran opariak jasotzen jarraitzen du. Errege Magoak datozela eta Santanderrera abiatu ziren zuri-gorriak, eta atzoko oparia ez zen txarragoa izan. Racigek hiru gol sartu zizkion Aranzubiarri, baina zenbat aukera hutsegina zituen zenbatzea ez da erraza. Opariak hartzeko direnez, Athleticcek eskerrak eman, eta Etxeberriaren gol bi utzi zituen Sardinieron.

Neurketa nola hasi zen ikusita inork gutxik pentsatuko luke atsedendira 3-1 galtzen egongo zela Athletic. Bizi-bizi hasi zen partida. Talde biak garaipean gosez ziren, baina zuri-gorrien aldetik 9 minutu besterik ez zuen iraun itxaropenak. Munitisek bere ohiko bizitasuna erakusteko behar izan zuen tarte izan zen.

Hurrengo minutuak ahazteko modukoak izan ziren. Markagailuan aurea hartu eta kontraerasoan jokatzeko zen Racingen helburua, eta behin lehen helburua lortuta eroso aritu zi-

ren. Regueiok eta Munitisek bereak eta bi egiten zuten hegaletatik. Konturatu orduko, area barruan barneratu eta Javi-Gonzalezek egin ez zuen penaltia adieraztea lortu zuen Regueiok. 2-0eko izan zen.

Errege Magoak beste nonbait ote ziren pentsatzen hasia zen Athleticzalea. Baina, ez. Baltasar han zegoen behintzat. Athletic noraezean zegoen birritan geratu zen Aranzubiaren aurrean, bakarrik, Bodipo. Gutxi balitz, Moratonek bere atean sartu zuen Athleticen lehenengo gol. Hala ere, Regueiok 3-1ekoa sartu zuen atsedendira ailegatu aurretik.

Huts gehiago egiterik ez zegoela pentsatzekoa zen. Gogotsu, Racing baino gehiago zirela erakustekoasmoz zelairatu ziren zuri-gorriak bigarren zatian, eta baita lortu ere. Ordu laurden nahikoa izan zuten berdintzeko. Urzaizek penaltiz, eta Etxeberriak talde guztiaren jokaldi batean lortu zuten 3-3koa. Barkatzeko asmorik erakutsi ez zuena Etxeberria izan zen. Kontraeraso bikain baten garaipenaren gola eman zion Athletic. Ez dago gehiago eskatzerik.



ESTEBAN COBO / EFE

Pablo Orbaiz, atzo, Sardinieron min hartu aurretik, Bodipo Racingeko jokalaria segika duela.



Athletic Club

2003 URTEKO KUOTAK

Jaun/Andere bazkideen urteroko kuota berriztatu gabeak BAZKIDE-KARNETA AURRETIAZ AURKEZTUZ eskuratu ahal izango dira ondoren adierazten diren leku eta datan.

SAN MAMES STADIUM-a	EGUNAK	ORDUTEGIA
(Txarteldegia Luis Briñas Kalean)	urtarrilaren 7tik urtarrilaren 11ra	10:30etatik 13:30etara 17:30etatik 20:00etara

Bilbo, 2003ko urtarrilaren 5a.



**Coche oficial del
Athletic Club**



Audi Auto Premium **Audi Auto Premium**